

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko maiatza

## Aurkibidea

1. BPGaren aurrerapena
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Inguruneko hazkundera
5. PMI konposatua
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2023ko lehen hiruhilekoan

Enpleguaren urte arteko gehikuntza %1,5ean kokatu zen.

### 2. Enplegu tasa zertxobait apaldu zen aurtengo hasieran.

Langabezia tasa bi hamarren hazi zen eta %8,7an kokatu da.

### 3. Inflazioa %3,3ra moteldu zen martxoan.

Hala ere, azpiko inflazioak balio altuetan jarraitzen du.

### 4. Munduko bi potentziak suspertu egin dira 2023ko hasieran.

Europar Batasunak leundu du bere apaltzea eta %1,3 hazi zen urte arteko tasan.

### 5. Zerbitzuek Europako ekonomia igoarazten dute.

Euroaren eremuko PMI konposatuak hamaika hilabetetako baliorik gorena erregistratu du.

### 6. NDFk uste du ez dela oso probablea inflazioa bere helburura itzultzea 2025a baino lehen.

Munduko ekonomiaren hazkundera %2,8ra apalduko da aurten eta %3,0 haziko da datorren urtean.



# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

## EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2023ko lehen hiruhilekoan


### BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

#### 1. HIRUHILEKOA

# %2,2

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2023ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Tasa hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere azken agertoki makroekonomikoan egindako aurreikuspena baino hamarren bat handiagoa da. BPGaren bilakaerak adierazten du Euskadi moteltzeko fase batean dagoela 2022a hasi zenetik, une horretan hazkunde tasa %5,8ra iritsi baitzen. Dinamismo txikiago horren isla da IPIaren bilakaera, 2023ko




lehen hilabeteetan apur bat uzkurtu baitzen. Hala eta guztiz ere, eskaera zorroaren hazkundeak positiboa izaten jarraitzen du, lan merkatuak indartsu segitzen du, esportazioek nabarmen egiten dute aurrera eta turismoaren sektoreak emaitza onak lortzen ditu; beraz, bilakaera ekonomikoaren aurreikuspenak positiboak dira oraindik. Hiruhilekoen arteko terminoetan, EAEko ekonomiak lortutako hazkundea %0,4koa izan zen, aurreko %0,5a baino hamarren bat gutxiago.

### BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

#### 1. HIRUHILEKOA


# %0,4



## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA  
**%1,5**




Lan merkatuari dagokionez, kontu ekonomiko-  
en arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostu  
baliokideetan neurtuta, urte arteko %1,5 hazi  
zen lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoetan  
baino tasa txikiagoa, baina oraindik oso esan-  
guratsua dena. Hala, azken urtean lanaldi oso-  
ko ia 15.000 lanpostu sortu dira eta guztira mi-  
lioio bat enplegu baino zertxobait gehiago dau-  
de. Zehatzago adierazita, lanpostu kopurua  
1.005.000 enplegutik gorakoa izan zen, eta zi-

fra hori da erregistrorik altuena 2008ko biga-  
rren hiruhilekoko maximoaren ondoren.  
Hiruhileko arteko terminoetan, enplegua %0,3  
hazi zen EAEn, eta horrek erakusten du joera  
aldatu egin dela, 2022ko bigarren hiruhilekoan  
hasitako beheranzko joeraren aldean. Azkenik,  
bi erregistroak guztiz bat datoz Ekonomia eta  
Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikus-  
penekin.

## ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA  
**%0,3**



Iturria: Eustat.




## Enplegu tasa zertxobait apaldu zen aurtengo hasieran

### LANDUNAK. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

#### 1. HIRUHILEKOKO TASA

# %51,4




BJA inkestak 2023ko lehen hiruhilekorako zenbatetsi dituen datuen arabera, Euskadin aurreko hiruhilekoan baino 2.100 landun gutxiago erregistratu ziren, enplegua zuten pertsonen kopurua 962.900 izatetik 960.800 izatera jaitsi baitzen, eta enplegua bi hiruhilekotan jarraian moteldu da. Okupazioaren jaitsiera horrek azaltzen du erregistratutako enplegu tasaren murrizketa arina (%51,4 aurreko %51,6 horren aldean). Generoaren araberrako azterketak egiaztatzen

du enplegu tasaren murrizketa oso antzekoa izan zela gizonen eta emakumeen artean: hamarren bat jaitsi zen gizonen artean eta bi hamarren, berriz, emakumeen artean. Hala eta guztiz ere, emakumeen enplegu tasak, beharakada txiki hori gorabehera, bere maximo historikoetatik oso hurbil zegoen erregistroa jaso zuen; gizonen tasa, berriz, urrun geratu zen 2007. urtearen amaieran erregistratutako balio gorenetatik (%63,9).


### LANDUNAK. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



### LANDUNAK. GIZONAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Aipatutako enpleguaren beherakadaren ondorioz, aurreko hiruhilekoan baino 2.300 langabetu gehiago zeuden eta langabezia tasa, guztira, bi hamarren igo zen, %8,5etik egungo %8,7ra. Langabezia tasa horren hazkundeak eragin handiagoa izan zuen gizonen artean, horien tasa hiru hamarren igo baitzen; emakumeena, berriz, hamarren bat baino ez zen goratu. Azkenik, egia bada ere atzeritarren langabezia tasaren gorakada moteldu egin zela, oraindik ere nabarmen gainditzen du biztanleria nazionalarena.


## LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



## LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak




Iturria: Eustat.

# INFLAZIOA

## Inflazioa %3,3ra moteldu zen martxoan

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIa %3,3an kokatu zen martxoan, eta bi puntu eta erdi murriztu zen aurreko hilabetearen aldean, argindarraren eta erregaien prezioen bilakaerari esker. Erregistro hori 2021eko abuztutik lortutako baxuena da, eta duela urtebete erregistratutako tasaren ia herena da, oinarrizko efektua deiturikoagatik, 2022ko martxoarekin alderatuta, une horretan energiaren prezioek nabarmen egin baitzuten gora Ukrainako gerra piztu zenean.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko martxo
Inflazio osoa (%100)	3,1	8,1	3,3
Azpiko inflazioa (%83,7)	1,0	5,1	7,4
- Elikagai landuak (%15,6)	1,4	10,2	16,4
- Industria ondasunak (%20,5)	1,0	4,7	6,0
- Zerbitzuak (%47,6)	0,7	3,3	4,5
Hondar inflazioa (%16,3)	12,1	20,0	-11,0
- Landu gabeko janariak (%7,0)	2,6	10,8	11,4
- Energia (%9,3)	21,3	28,2	-26,0


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Hala ere, inflazio globala moteldu egin zen arren, azpiko inflazioak tasa oso altuetan jarraitu zuen (%7,4), bien arteko aldea 4,1 puntura handituz, INE azpiko inflazioari buruzko datuak argitaratzen hasi zenetik jaso den handiena baita. Beste behin ere, elikagaien prezioen bilakaerak kalte egin zion azpikoari, %15,5 igo baitziren, gobernuak oinarrizko produktu batzuetarako onartu zituen BEZaren beherapenak gorabehera. Elikagaiez gain, Aste Santuaren bezperan

## TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



turismo jardueren prezioen igoera nabarmendu zen. Aitzitik, inflazioaren urteko tasaren jaitzieran izandako eraginagatik nabarmendu ziren taldeak, nagusiki, etxebizitza (-%17,0) eta, neurri txikiagoan, garraioa (-%4,2) izan ziren. Lehen kasuan, beherakada horren erantzule nagusia elektrizitatea izan zen, eta beheranzko prezioekin jarraitu zuen, salbuespen iberikoa deiturikori esker. Garraioaren tasa, era berean, erregaien merkatzeak murriztu zuen.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,3</b>	<b>3,3</b>	<b>6,9</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	15,5	16,5	17,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	7,8	8,6	7,3
Jantziak eta oinetakoak	2,2	3,2	4,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-17,0	-16,2	4,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	8,1	7,3	8,5
Osasuna	2,2	1,6	2,6
Garraioa	-4,2	-4,8	0,6
Komunikazioak	2,4	2,4	0,3
Aisia eta kultura	4,5	4,4	6,3
Hezkuntza	2,0	1,6	4,4
Jatetxeak eta hotelak	7,3	7,8	8,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	5,6	5,1	5,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



# INGURUNEN HAZKUNDEA

## Munduko bi potentziak suspertu egin dira 2023ko hasieran


### TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA  
1. HIRUHILABETEA

**%4,5**

Txinako BPGA %4,5 hazi zen 2023ko lehen hiruhilekoan, azken lau aldietako baliorik handiena baita eta argitaratutako aurreikuspenak gaindizten dituen tasa. Pandemiari aurre egiteko mugikortasunari ezarri zitzaizkion murrizketak amaitu ondoren, jarduera handiko aldia hasi du Asiako erraldoiak. Ekonomiaren gorakada, neurri handi batean, kontsumo pribatuak eman duen erantzun sendoan oinarritzen da, familiek konfiantza berreskuratu ahala. Esportazioen bultzada esanguratsuak ere lagundu du aldakuntza tasa bizi hori lortzen.




Bestalde, AEBetan urte arteko tasa zazpi hamarren hobetu da aurreko datuaren aldean eta lehen hiruhilekoan %1,6an kokatu da. Hiruhileko arteko tasa (%0,3) aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren erdia (%0,6) baino izan ez bazen ere, moteltzearen zati handi bat izakinen aldakuntzaren ekarpen negatiboak (aldakortasun handia du) eta inportazioen gorakadak azaltzen dute. Halaber, kontsumo pribatuaren portaera hobetu egin zen, lan merkatuaren sendotasunagatik, eta inbertsioak arindu egin zuen aurreko datuetan hauteman zen beherakada.

### AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA  
1. HIRUHILABETEA


**%1,6**






## EUOPAR BATASUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## EUROGUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Europari dagokionez, bai euroaren eremuak bai Europar Batasunak %1,3ko urte arteko hazkundea izan zuten, lau hiruhileko iraun duen moteltzeko prozesu argi batean. Intentsitate galera hori, bereziki, Alemanian gertatu da, 2022aren amaieran %0,8 hazi baitzen, eta 2023ko lehen hiruhilekoan, ordea, -%0,1eko tasa erregistratu baita. Aitzitik, Frantziak lau hamarren bizkortu du gehikuntza tasa, %0,8ra arte.

Testuinguru horretan, Espainiako datu ona nabarmentzen da, aurreko datua ia puntu batean hobetu baitu, eta BPGaren aldakuntza tasa %3,8an kokatu, hazkundeari kanpoko saldoak ekarpen bikaina egin diolako, 2,5 puntutan zenbatetsita.


## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.



# PMI KONPOSATUA

## Zerbitzuek Europako ekonomia igoarazten dute


Apirilean, euroaren eremuko PMI indizeak 54,4ko balioa lortu zuen, azken hamaika hilabeteetako maximoa baita. Horrek esan nahi du jarduera ekonomikoa bizkortu egin dela bigarren hiruhilekoaren hasieran. Eskariaren igoerari ia urtebeteen enplegu gehiago sortu izana gehitu behar zaio. Hornidura kateetako arazoak arindu egin dira, eta horrek inflazioa moteltzen lagundu du.

Hala ere, bilakaera positiboa zerbitzuen sektorean soilik kontzentratzen da, hileko datua 56,6 punturaino igo baitu, azken hamabi hilabeteetako maximora, alegia. Aitzitik, manufakturen sektorearen ekoizpena ahuldu egin da eta 48,5eko datua jaso du, martxoko datua baino ia bi puntu txikiagoa, eta uzkurdura eremura itzuli da. Produktuen eskaera gutxitu izanak azaltzen du okertze hori.


### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2023KO APIRILA


54,4




### MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



## PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




## PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeka, Alemaniak (53,9) eurogune osorako azaldutakoaren bilakaera oso antzekoa erakusten du, zerbitzuen sektoreak (55,7) bultzada handia lortu baitu eta manufakturek, ordea, nolabaiteko ahulezia (50,3). Frantzia (53,8) alemanen mailatik hurbil dago, baina aipatutako ezaugarriak nabarmenagoak dira. Hala, zerbitzu jarduera 56,3 punturaino igo da, eta manufakturen ekoizpena, berriz, 41,9 punturaino hondoratu da, ia hiru urtean izan duen emaitzarik txarrena. Herrialde horretako gobernuak erabakitako pentsioen erreformaren aurkako protestek eragin argia dute sektorearen bilakaeran.


## PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



## PMI KONPOSATUA. AEB



## PMI KONPOSATUA. JAPONIA




Iturria: Markit

# NDF-REN AURREIKUSPENAK

## NDFk uste du ez dela oso probablea inflazioa bere helburura itzultzea 2025a baino lehen

### MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Apirilean argitaratutako txosten berri batean, NDFk aurreikusten du munduko produkzioaren hazkundera 2022ko %3,4tik %2,8ra motelduko dela 2023an, eta %3,0ra suspertuko dela 2024an. Hazkunde tasen apaltze hori nabarmenago gertatuko da ekonomia aurreratuetan, Europak Ukrainako gerrarekiko esposizio handiagoa duelako, eta, AEBen kasuan, bertako inflazio prozesuaren dinamikagatik. Suspertzen ari diren ekonomiei dagokienez, Txina %5etik gora haztea espero da, ekonomia berriro ireki ondoren.

### NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,4</b>	<b>2,8</b>	<b>3,0</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,1</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>2,7</b>	<b>1,3</b>	<b>1,4</b>	<b>0,1</b>	<b>0,0</b>
AEB	2,1	1,6	1,1	0,2	0,1
Eurogunea	3,5	0,8	1,4	0,1	-0,2
Alemania	1,8	-0,1	1,1	-0,2	-0,3
Frantzia	2,6	0,7	1,3	0,0	-0,3
Italia	3,7	0,7	0,8	0,1	-0,1
Espainia	5,5	1,5	2,0	0,4	-0,4
Erresuma Batua	4,0	-0,3	1,0	0,3	0,1
Japonia	1,1	1,3	1,0	-0,5	0,1
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>4,0</b>	<b>3,9</b>	<b>4,2</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,0</b>
Txina	3,0	5,2	4,5	0,0	0,0
India	6,8	5,9	6,3	-0,2	-0,5
Errusia	-2,1	0,7	1,3	0,4	-0,8
Brasil	2,9	0,9	1,5	-0,3	0,0


## EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Aurreikuspenen arabera, inflazio globala 2022ko %8,7tik 2023ko %7,0ra jaitsiko da. Hala ere, azpiko inflazioa, hau da, elikagai freskoak eta energia alde batera uzten dituen, askoz motelago jaitea espero da 2023an, %0,2 soilik, eta horrek iraunkortasun handia islatuko luke. Oro har, ez da espero inflazioa banku zentralak finkatutako helburuetara itzultzea, kasu gehienetan, 2025a baino lehen.

Hala, banku zentral gehienek moneta politika murriztailearekin jarraitzea aurreikusten da, nahiz eta finantza sektorean tentsio berriak izan eta zorpetze publiko handiko ingurune globalak arriskuak gutxitzeko eta finantza egonkortasuna babesteko neurri horiek leuntzea ekar lezakeen.

## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
<b>BPG</b>	<b>5,9</b>	<b>4,4</b>	<b>5,8</b>	<b>5,0</b>	<b>3,8</b>	<b>2,9</b>	<b>2,2</b>
Barneko azken kontsumoa	5,2	2,2	2,9	1,8	2,0	2,1	—
Familien kontsumoa	5,6	3,0	3,5	3,2	2,7	2,3	—
Administrazioaren kontsumoa	3,9	-0,4	0,7	-2,9	-0,4	1,2	—
Kapital eraketa gordina	6,0	4,4	4,7	4,8	5,1	2,9	—
Barne eskaria	5,4	2,7	3,3	2,5	2,7	2,3	—
Esportazioak	12,7	10,2	13,5	13,7	9,2	4,9	—
Inportazioak	11,6	7,5	10,6	8,8	6,0	4,7	—
Lehen arloa	21,9	0,8	-1,7	-3,4	7,8	0,7	—
Industria eta energia	6,1	4,6	6,5	5,9	3,6	2,5	—
Eraikuntza	4,5	2,0	1,9	1,3	2,3	2,4	—
Zerbitzuak	5,8	4,7	6,2	5,4	4,2	3,2	—
Balio erantsi gordina	5,9	4,5	6,0	5,2	4,0	3,0	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	2,9	3,9	2,9	2,6	2,1	—
Enplegua	5,9	3,1	4,9	3,7	2,0	1,9	1,5

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023				2023	2024
	I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,1</b>	<b>0,9</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>1,5</b>	<b>2,1</b>
Barneko azken kontsumoa	1,7	1,2	1,3	1,5	1,4	2,1
Familien kontsumoa	1,6	0,1	1,0	1,6	1,0	2,3
Administrazioaren kontsumoa	2,3	5,0	2,4	1,2	2,7	1,3
Kapital eraketa gordina	1,6	2,0	3,0	2,9	2,4	4,1
Barne eskariaren ekarpena	1,8	1,3	2,4	1,8	1,8	2,5
Kanpo eskariaren ekarpena	0,4	-0,3	-0,9	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	4,0	-4,8	-3,2	5,1	0,0	1,2
Industria	1,0	0,2	2,8	0,7	1,1	1,8
Eraikuntza	1,4	1,0	0,4	-0,2	0,6	1,6
Zerbitzuak	2,6	1,4	1,4	1,9	1,8	2,3
Balio erantsi gordina	2,2	1,0	1,6	1,5	1,6	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	0,7	0,9	1,1	1,2	1,8
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	0,7	0,7	0,6	0,9	0,9
Lanadunak (BJA)	1,1	0,2	0,5	0,1	0,5	0,4

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,0	BBVA	1,3	2,9
Confebask	1,5	—	Ceprede	0,9	1,7
Laboral kutxa	1,3	—			

# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>5,5</b>	<b>5,5</b>	<b>6,5</b>	<b>7,7</b>	<b>4,8</b>	<b>2,9</b>	<b>3,8</b>
Kontsumo pribatua	6,0	4,5	4,8	5,2	5,0	2,9	1,5
Kontsumo publikoa	2,9	-0,7	-1,1	-2,6	-1,4	2,5	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,9	4,6	3,8	6,0	6,3	2,4	0,8
- Aktibo finko materialak	0,1	4,4	3,1	5,8	6,2	2,7	1,0
- Eraikuntzan	-3,7	4,7	0,6	6,5	6,9	4,7	5,0
- Ekipamendu ondasunetan	6,3	4,0	7,0	4,6	5,1	-0,7	-5,5
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,7	5,5	7,1	6,8	6,7	1,5	0,1
Nazio eskaria (ekarpena)	5,2	3,1	4,7	3,8	2,9	1,0	1,3
Esportazioak	14,4	14,4	17,1	20,2	14,2	7,1	10,2
Inportazioak	13,9	7,9	12,5	8,5	8,9	2,2	4,0

## BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Oxford Economics	1,8	1,3	CEOE	1,3	2,0
Moody's Analytics	1,7	1,6	UniCredit	1,3	1,4
UBS	1,7	2,1	Fitch Ratings	1,2	1,8
BBVA	1,6	2,6	Barclays	1,2	0,9
Societe Generale	1,6	1,2	Citigroup	1,2	1,5
HSBC	1,6	1,1	CEPREDE	1,2	2,3
Grupo Santander	1,5	2,2	S&P Global Market Intel	1,1	1,6
AFI	1,5	1,5	<b>Batez bestekoa</b>	<b>1,4</b>	<b>1,8</b>
Inst. Estud. Económicos	1,5	2,2	Gobernua (2022-10)	2,1	—
Repsol	1,5	2,2	Espainiako Bankua (2023-03)	1,6	2,3
Econ Intelligence Unit	1,4	2,0	Europar Batzordea (2023-02)	1,4	2,0
La Caixa	1,3	1,9	NDF (2023-04)	1,5	2,0
Goldman Sachs	1,3	1,7	ELGA (2023-03)	1,7	1,7

Iturria: Consensus Forecast.

# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
AEB	5,9	2,1	3,7	1,8	1,9	0,9	1,6
Txina	8,1	3,0	4,8	0,4	3,9	2,9	4,5
Japonia	2,1	1,0	0,6	1,4	1,5	0,4	—
Kanada	5,0	3,4	3,1	4,7	3,8	2,1	—
Europar Batasuna	5,4	3,5	5,7	4,4	2,6	1,7	1,3
Eurogunea	5,3	3,5	5,5	4,4	2,5	1,8	1,3
Alemania	2,6	1,8	3,8	1,7	1,4	0,8	-0,1
Frantzia	6,8	2,6	4,7	4,2	1,0	0,4	0,8
Erresuma Batua	7,6	4,0	10,6	3,8	2,0	0,6	—
Italia	7,0	3,7	6,5	5,1	2,5	1,4	1,8
Herbehereak	4,9	4,5	6,1	5,2	3,4	3,5	—

Iturria: Eurostat eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2023KO APIRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	1,1	0,7	4,3	2,6	3,9	4,7
Japonia	1,1	1,1	2,5	1,4	2,5	2,4
Kanada	0,8	1,3	3,6	2,2	5,6	6,1
Europar Batasuna	0,7	1,5	6,2	2,9	—	—
Eurogunea	0,7	1,0	5,5	2,4	6,8	6,8
Alemania	0,1	1,2	6,1	2,7	5,5	5,4
Frantzia	0,5	1,0	5,3	2,7	7,3	7,5
Erresuma Batua	-0,2	0,8	6,4	2,8	4,2	4,6
Italia	0,6	1,0	6,0	2,4	8,1	8,0
Espania	1,4	1,8	4,0	2,8	—	—
Herbehereak	1,3	1,1	4,4	3,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.